

Ur azpian lan egitea.

Itsasontzi bat hondatuz gero... Nor da soldatzera, moztera eta konpontzera urpeko aldera sartzen dena? Nork erreskatatzen du hondoratze batetik geratzen dena?

Beti izan dira arazoak diren lekuetara hurbiltzera ausartu direnak, arazoa urruna, handia edo sakona bada ere?

Denbora luzez, garatugabea zen murgiltze tresneria: burdinazko piezak, torlojuak; belkrorik eta kremailerarik gabeko urpeko jantziak. Arriskuak ezin aurreikusi eta lanbidea ongi ikasita murgiltzen ziren Frankenstein eta erdi aroko zaldunen antzeko zerbaiten itxurarekin.

Elikatzen eta babesten dituen zilbor hesteen bidez, beti ere lehorrera lotuta.

Armadan jaiotako lanbideak. Lan milimetratuak, erlojuaren kontra, diziplina militarrez ikasiak. Ur azpian egiten dituzte murgilariak mozketa eta soldaketak. La alkimiakoak diren teknikak suaren urpeko erabilpena ahalbideratzen dute, itsas hondooan, noranzkoa eta denbora galdu egiten diren leku horretan. Eta jantziak eta tresneria aldatu eta dena errazagoa izan arren, murgilarien lanbidea ez da batere erraza ezta atsegina ere. Itsaspeko bakardadea bokazio izan daiteke, baina baita maldizio ere.

Azken hori jakiteko, ispiluaren bestaldera igaro behar da. Murgilari bihurtu nahi dutenek simulagailuetan antzeztan dituzte egoera zail eta larrienak. Ikasteko, ez dago besterik.

Goian, beti dago norbait zelatan: Aire hel dadila, murgilaria ondo egon eta bilatzen duena aurki dezala... baina hor azpian, benetako lanean, bakarrik ibiliko dira, eta ezusteak asko izan daitezke. Lan honek teknika eta ezagupenak eskatzen ditu, baina naretasuna ere bai; Patxada eta zalutasunaren nahasketa bat; oldarra eta zuhertasuna, dosi egokian. Horren arabera izango da lanaren eraginkortasuna, eta, kasu askotan, langilearen biziraupena bera.

Uretatik kanpo hasten da dena.

Urpekari-kanpai batekin, aspertu arte egon daiteke urpean. Gainazalean, murgilaria kanpairo sartzen da, eta iritsi behar duen sakoneraren presio bera sortzen da kanpaiaren barruan. Kanpaia jaitsiko da, murgilariak bere lana egingo du, eta amaitutakoan, kapsulara itzuli ahal izango da, deskonpresioa egin beharrik gabe. Denbora luzea eskatzen duten sakonera askoko lanetan, aurrerapauso handia izan ziren teknika berri hauek, murgilarien eraginkortasunari eta euren segurtasunari begira. Besteren arazoez arduratzen da murgilari profesionala: Itsasontzietan, petrolio plataformetan, zubietan, gasbideetan, erreskateetan, hondoratzeetan... halakoetan, gauzak ezin dira gaizki joan.

Iluntasuna, bakartasuna eta sakontasun beldurgarria ez dira urpean dabilzan gizaki haien jabe egiten, baina irtetea ez dira ahazten.